

Donostia, 2019-05-13

Irailaren 16an amaituko da Sarirako hautagaitzak aurkezteko epea

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAREN AURTENGO DEIALDIA AURKEZTU DUTE DONOSTIAN

XXXI. edizioa da aurtengoa, eta berrikuntzaz beteta dator

Aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren deialdia egin du Andoaingo Udalak, eta urteroko moduan deialdiaren xehetasunak aurkeztu dituzte Andoaingo Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Donostian, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan emandako prentsaurrekoan. Prentsaurrekoan parte hartu dute, Andoaingo Udalaren aldetik Ainara Rodríguez Zalakain, Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzi eta alkateordeak, eta Patxi Baztarrika, Udaleko Euskara teknikariak; eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Estibalitz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara sustatzeko zuzendariak.

XXXI. edizioa da aurtengoa, eta berrikuntzaz beteta dator, bai edukiari dagokionez, eta baita ere formari dagokionez. Horrela, bada, bi sari izango dira: **“Kazetaritza saria”** eta **“Komunikazio saria”**. Gainera, aurtun lehen aldiz, finalistak ere izendatuko dira, *Kazetaritza sarirako* lau eta *Komunikazio sarirako* beste lau, gehienez. Sarituak izateko hautagaitzak proposatzeko aukera izango du edonork, baina finalistak nahiz saridunak erabakitzeke ez da nahitaezko baldintza izango aldeztatik hautagaitza aurkeztea.

“Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrezanetara egokitua”: hori da Andoaingo Udalak urtero gogorarazten duen mezua eta Kazetaritza Sari hau hogeita hamaika urteotan antolatzeke arrazoia. Andoaingo Udalak deitu eta antolatzen duen Sari honek, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren dirulaguntza jasotzen du, urtero bezala baita aurtun ere.

Ainara Rodríguez Zalakainek azaldu duenez, “euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea dugu Sariarekin helburu”. Gogora ekarri du, iaz, XXX. urtemuga zela-eta, edizio berezia izan zuela RAKSek, eta konpromiso publiko bat hartu zutela antolatzailleek. Hitzez hitz hauxe izan zen Andoaingo Udalak orduan hartu eta adierazi zuen konpromiso publikoa: “RAKSek hainbestetan aldarrikatu duen berrikuntzari atea irekiko dio; horregatik, etorkizunean berrituta etorriko da Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, eta, ohiko kazetaritzari bizkarra eman gabe, sare sozialetako komunikazioan ere jarriko du fokua. Hori horrela 2019an izango da”. Hain zuzen ere konpromiso hori betetzeko berrikuntza helburu duten aldaketak eginez dator XXXI. edizioa. “Horregatik, adierazi du Andoaingo zinegotziak, bi sari izango dira aurtengoan: bata, orain arteko moduan “Kazetaritza saria”, berriemaitzari eta kazetaritzaren ezaugarri eta irizpideei estuki lotua, eta bestea, “Komunikazio saria”, euskarazko komunikazioa molde eta formatu berrietara egokitzeko bidean egindako urrats esanguratsu eta berritzaileak sarituko dituena. Sari hau, “Komunikazio saria” esan nahi da, berria da, aurtun emango da lehen aldiz”. Gaineratu du, “betiko prentsa, irrati eta telebistaren ondoan, edozein eratako tramankuluak erabiltzen ditugu gaur informazioa eta entretenimendua eskuratzeko, eta horiek guztiak euskaraz izatea ezinbesteko dugu. Ezinbesteko dugun bezala sare sozialetan, web guneetan, publizitatean, Interneteko modu bateko eta besteko komunikazio jardunetan euskaraz sortzea eta euskarazko eskaintza hedatzea. Euskaraz bizi nahi dugulako, indartsu ikusi nahi dugu euskara hedabideen eta komunikazioaren mundu gero eta zabalago honetan. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria helburu horren aldeko ale bat da”.

Estibalitz Alkortak azpimarratu duenez, “euskarazko hedabideek egiten duten eskaintza gero eta zabalagoa da. EITB taldeak telebistan, irradian eta ingurune digitalean egiten duen eskaintzaz gain, baditugu ehun komunikazio-proiektu baino gehiago informazio orokorra, tokikoa edo berezituia eskaintzen dutenak. Badaukagu egunero euskara hutsean argitaratzen den egunkari bat, badaude informazio orokorreko aldizkariak, aldizkari berezituak, tokiko telebistak, tokiko egunkariak, irrati-kateak eta ingurune digitalean diharduten gero eta hedabide gehiago. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek pauso garrantzitsu bat eman dugu aurtun errealitate anitz eta aberats hori hobeto zaintzeko, proiektu horien finantziario publikoa hobetuz. Horrez gain, hedabide horien gizarte mailako aitortza hobetu nahi dugu, eta horretarako, Andoaingo Udalarekin batera, Rikardo Arregi Sariak indartu egin ditugu”.

Aurtengo edizioaren oinarrien xehetasunak aurkeztu ditu **Patxi Baztarrika** epaimahaiaren idazkariak. Bi sari nagusi banatuko dira: Kazetaritza saria eta Komunikazio saria. "Kazetaritza saria"ri dagokionez, 2019ko urtarrilaren 1etik irailaren 15era arteko tartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu diren kazetaritza-lanek izango dute saria eskuratzeko aukera. Saria 9.000 eurokoa da, eta Xabier Lakak Sarirako berariaz egindako irudi artistikoa. Eta "Komunikazio saria" eskuratzeko aukera izango dute, euskarazko komunikazioa molde eta formatu berritueta egokitu eta euskarazko komunikazioaren mesedetan haien aukeraz baliatzeko urrats berritzaileak jotzen direnek. Betiere, 2019ko urtarrilaren 1etik irailaren 15era bitartean euskaraz sortu, ekoitzi eta, kasua bada, zabalduko komunikazio ekintza bat, komunikazio proiektu bat edo komunikazio proposamen bat izan beharko du nahitaez. "Komunikazio saria" ere 9.000 eurokoa izango da, eta Xabier Laka eskultoreak egindako irudi artistikoa. Gehienez ere zortzi finalista izango dira, aurtengoa lehen aldiz, eta finalistek, saridunek izan ezik, Xabier Lakak beren-beregi Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako sortutako irudiaren serigrafia jasoko dute.

Saridun izateko hautagaitzak (kazetaritza edo komunikazio lanak) irailaren 15era bitartean aurkez litezke, proposamenak Andoaingo Udalerako posta arruntez bidaliz edota helbide elektroniko honetara igorritik: raks@andoain.eus. Finalista edo sariduna izateko ez da, halere, ezinbestekoa izango hautagaitza aurkeztea, epaimahaiak aukera osoa baitu bere proposamen propioak eztabaidatzeko, eta jasotako proposamenen eta epaimahaiakideek beraien egin eta eztabaidatutakoen artean finalistak eta sariak erabakitzeko.

Epaimahaiak ondorengoek osatuko dute: Jose Inazio Basterretxea (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), Itxaro Borda (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), Aingeru Epaltza (idazlea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea), Maite Goñi (MUko HUHEZIKo irakaslea eta komunikazioan aditua), Elixabete Larrinaga (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), Ion Muñoz (Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Graduko irakaslea), eta Jon Sarasua (MUko HUHEZIKo irakaslea eta komunikazioan aditua). Mahaiburua izango da Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna, Ainara Rodríguez Zalakain, eta idazkaria, Patxi Baztarrika, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria.

XXXI. edizio honetako finalistak nortzuk diren azaroaren hasieran emango du ezagutzera epaimahaiak, eta sari banaketako ekitaldia azaroaren amaieran izango da Andoainean, Bastero Kulturgunean. Orduan jakingo da nortzuk diren aurtengo saridunak.